Osakidetza

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
OSASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SALUD

# IA 93.000 PERTSONAK EMAN DUTE IZENA OSAKIDETZAREN 2016-2017 EPEn AURREKO EPEren GUZTIZKO IZEN EMATEAK GAINDITUZ

Atzo amaitu zen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian pasa den otsailaren 15ean argitaratutako lehenengo 20 kategorietan izena emateko epea, eta bertan daude eskaera gehien jaso dituzten lau kategoriak

EPE 2016-2017an izena emateko epea hasi zenetik, pasa den otsailaren 16tik, **ia 93.000 pertsonak eman dute izena Enplegu Publikorako Eskaintzan**. **Eskaintza 3.335 lanpostutakoa da**, eskainitako lanpostu kopuruaren arabera Osakidetzak egiten duen bigarren handiena, eta jada 2015eko deialdiko izen-emate kopurua gainditu da (60.000koa izan zen). **Izena eman duten pertsona kopuruari dagokionez, Osakidetzak inoiz egin duen EPE handienetakoa izan daiteke**.

Ildo horretatik, **Osakidetzaren Giza Baliabideetako zuzendari Juan Carlos Sotok** nabarmendu duenez, datuek aditzera ematen dute EPE berri hau ilusioa pizten ari dela izena eman duten pertsonengan eta, beraz, Osakidetza lan egiteko enpresa erakargarria dela, izena eman eta Osakidetzan lanpostua lortzeko helburua duten Euskadikoak diren pertsonentzat zein Euskaditik kanpokoak direnentzat.

Halaber, azpimarratu du garrantzitsua dela EPEak bi urtean behin antolatzea langileei egonkortasuna emateko. **Osakidetzaren Giza Baliabideetako zuzendariaren** hitzetan, EPE berri hau **oso eskaintza garrantzitsua da Osakidetzako langilegoa gaztetzeko,** eta urteetan zehar pilatutako bete gabeko lanpostuak betetzea eta **langileen % 95 egonkortzea ahalbidetuko du**.

Orain artean, **92.694 eskaera** erregistratu dira, eskainitako 86 kategoria eta espezialitate medikoetan. Horien artean, **gehiengo handi bat emakumeak dira**, **zehazki 70.237 (% 76a)** eta 22.457 gizonak dira. Hautagaien jatorriari dagokionez, % 19 inguru **Euskaditik kanpokoak dira, guztira 17.507 pertsona.**

Kategorien arabera, **atzo amaitu zen** Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian pasa den otsailaren 15ean argitaratutako **lehenengo 20 kategorietan** izena emateko epea, eta bertan daude **eskaera gehien jaso dituzten lau**

Donostia - San Sebastian, 1 – 01010 VITORIA-GASTEIZ
Tfno. 945 01 91 94 – Fax 945 01 93 02 – E-mail: gabinete1-san@ej-gv.es

**kategoriak**, hala nola: **jagoleak,** 18.134 eskaera; **erizaintza,** 13.942 eskaera; oso gertu dago **erizaintzako laguntzailea kategoria**, 13.692 eskaera eta 13.053 eskaera jaso ditu **administrazioko laguntzaile** kategoriak.

| *Kategoria* | *Eskaerak guztira* | *Emakumeak* | *Gizonak* | *EAE* | *EAEtik kanpo* |
|---|---|---|---|---|---|
| **JAGOLEA** | 18.134 | 10.369 | 7.765 | 16.664 | 1.470 |
| **ERIZAINTZA** | 13.942 | 12.364 | 1.278 | 7.665 | 6.277 |
| **ERIZAINTZAKO LAGUNTZAILEA** | 13.692 | 12.641 | 1.051 | 10.256 | 3.436 |
| **ADMINISTRAZIOKO LAGUNTZAILEA** | 13.053 | 10.874 | 2.179 | 12.618 | 435 |

Halaber, **atzo amaitu zen familiako mediku espezialitatean** izena emateko epea eta 1.500 pertsonak eman dute izena; **pediatrian** 179 izan dira.

| *Kategoria* | *Eskaerak guztira* | *Emakumeak* | *Gizonak* | *EAE* | *EAEtik kanpo* |
|---|---|---|---|---|---|
| **FAMILIAKO MEDIKUA** | 1.500 | 1.141 | 359 | 1.038 | 462 |
| **PEDIATRIAKO MEDIKUA** | 179 | 155 | 24 | 102 | 77 |

Izena emateko epea martxoaren 19ra bitarte zabalik dago beste 28 kategorietarako (EHAAn otsailaren 19an argitaratu zirenak) eta apirilaren 5era bitarte azken kategorietarako (martxoaren 5ean argitaratu zirenak).

Horien artean daude **obstetrizia eta ginekologia** kategoriak (**orain artean 130 pertsonak** eman dute izena), **oftalmologia kategoria** (**92k** eman dute izena) edo **kirurgia ortopediko eta traumatologia kategoriak** (**129 dira** izena eman dutenak).

| *Kategoria* | *Eskaerak guztira* | *Emakumeak* | *Gizonak* | *EAE* | *EAEtik kanpo* |
|---|---|---|---|---|---|

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| **OBSTETRIZIA ETA GINEKOLOGIAKO MEDIKUA** | 130 | 112 | 18 | 99 | 31 |
| **OFTALMOLOGIAKO MEDIKUA** | 90 | 62 | 28 | 69 | 21 |
| **KIRURGIA ORTOPEDIKO ETA TRAUMATOLOGIAKO MEDIKUA** | 129 | 61 | 68 | 100 | 29 |

EPE eskaintza honek SATSE, SME Sindikatu Mediku eta UGT sindikatuen babesa du eta azterketak **maiatza eta ekainean** zehar egingo dira. Zehazki, espezialitate medikoak Gasteizen egingo dira **maiatzaren 12tik aurrera**, hiru asteburu jarraitan; gainerako kategoria profesionalak **ekainaren 15, 16 eta 17an** egingo dira Barakaldoko Bilbao Exhibition Centre-en (BECen) eta **ekainaren 23, 24 eta 30ean eta uztailaren 1ean**, Gasteizen baita ere.

**Oharra:** dokumentu erantsian bildu dira EPE 2016-2017an eskaintzen diren kategoria bakoitzaren EHAAko argitalpen-datak.

Vitoria-Gasteizen, 2018ko martxoaren 16an

Osakidetza

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
OSASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SALUD

# CASI 93.000 PERSONAS SE HAN INSCRITO YA EN LA OPE 2016-2017 DE OSAKIDETZA SUPERANDO LAS SOLICITUDES TOTALES DE LA OPE DE 2014-2015

Ayer finalizó el plazo de las primeras 20 categorías que se publicaron en el Boletín Oficial del País Vasco, el pasado 15 de febrero, en el que están incluidas las 4 categorías que mayor número de solicitudes han recibido

Desde que se abriera el plazo de inscripción de la OPE 2016-2017 el pasado 16 de febrero, **casi 93.000 personas se han inscrito ya en esta oferta de empleo público que, con 3.335 plazas**, la segunda de la historia de Osakidetza en cuanto al número de plazas ofertadas, supera el número de solicitudes de la anterior convocatoria de 2015, (cerca de 60.000) y **aspira a convertirse en una de las mayores de la historia de Osakidetza en cuanto al número de personas inscritas.**

En este sentido, el **director de Recursos Humanos de Oskidetza, Juan Carlos Soto,** ha destacado que los datos están reflejando que esta nueva OPE está generando ilusión entre las personas que se han inscrito y que Osakidetza es una empresa atractiva para trabajar tanto para los vascos y vascas como para las personas de fuera de Euskadi que se están apuntando y que aspiran a obtener un puesto de trabajo en Osakidetza.

Así mismo, ha destacado la importancia de organizar OPES bienales para dar estabilidad a la plantilla. En palabras del director de Recursos Humanos, la nueva OPE **es una oferta es fundamental para el rejuvenecimiento de la plantilla de Osakidetza, que va a hacer posible** cubrir las vacantes acumuladas durante años y **estabilizar el 95% de la plantilla.**

Hasta el momento, se han contabilizado **92.694 solicitudes** en el total de 86 categorías y especialidades médicas ofertadas. De ellas, **la gran mayoría son mujeres, concretamente 70.237** (76%) y 22.457 hombres. En cuanto a la procedencia de los aspirantes, aproximadamente el 19 % **son de fuera de Euskadi, un total de 17.507 personas.**

Donostia - San Sebastian, 1 – 01010 VITORIA-GASTEIZ
Tfno. 945 01 91 94 – Fax 945 01 93 02 – E-mail: gabinete1-san@ej-gv.es

Por categorías, **ayer finalizó el plazo de las primeras 20 categorías** que se publicaron en el Boletín Oficial del País Vasco, el pasado 15 de febrero, en el que están incluidas **las 4 categorías que mayor número de solicitudes han recibido**, como son las de **celador/ra** con 18.134 solicitudes; **enfermería,** 13.942; muy cerca la de **auxiliar de enfermería** con 13.692 y de **auxiliar administrativo**, 13.053.

| *Categoría* | *Total Solicitudes* | *Mujeres* | *Hombres* | *CAV* | *Fuera CAV* |
|---|---|---|---|---|---|
| **CELADOR/A** | 18.134 | 10.369 | 7.765 | 16.664 | 1.470 |
| **ENFERMERÍA** | 13.942 | 12.364 | 1.278 | 7.665 | 6.277 |
| **AUXILIAR DE ENFERMERÍA** | 13.692 | 12.641 | 1.051 | 10.256 | 3.436 |
| **AUXILIAR ADMINISTRATIVO** | 13.053 | 10.874 | 2.179 | 12.618 | 435 |

Así mismo, **ayer finalizó el plazo** para la especialidad de **médico/a de familia** que tiene 1.500 personas inscritas y la de **pediatría** con 179.

| *Categoría* | *Total Solicitudes* | *Mujeres* | *Hombres* | *CAV* | *Fuera CAV* |
|---|---|---|---|---|---|
| **MÉDICO/A DE FAMILIA** | 1.500 | 1.141 | 359 | 1.038 | 462 |
| **MÉDICO/A PEDIATRÍA** | 179 | 155 | 24 | 102 | 77 |

Todavía, el plazo de inscripción está abierto hasta el 19 de marzo para otras 28 categorías, publicadas en el BOPV el 19 de febrero y hasta el 5 de abril para las últimas 38, publicadas el 5 de marzo.

Entre ellas, se encuentran las categorías de obstetricia y ginecología que hasta el momento tiene 130 personas inscritas, oftalmología, 90 o cirugía ortopédica y traumatología, 129.

| *Categoría* | *Total Solicitudes* | *Mujeres* | *Hombres* | *CAV* | *Fuera CAV* |
|---|---|---|---|---|---|

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| **MÉDICO/A OBSTETRICIA Y GINECOLOGÍA** | 130 | 112 | 18 | 99 | 31 |
| **MÉDICO/A OFTALMOLOGÍA** | 90 | 62 | 28 | 69 | 21 |
| **MÉDICO/ACIRUGÍA ORTOPÉDICA Y TRAUMATOLOGÍA** | 129 | 61 | 68 | 100 | 29 |

Los exámenes de esta OPE, una oferta que cuenta con el respaldo de la mayoría sindical que conforman los sindicatos SATSE, Sindicato Médico SME y UGT, se celebrarán durante **los meses de mayo y junio.** En concreto, las especialidades médicas se realizaran en Vitoria-Gasteiz **a partir del 12 de mayo,** durante tres fines de semana consecutivos, y el resto de categorías profesionales se realizaran los días **15,16 y 17 de junio** en el Bilbao Exhibition Centre (BEC) de Barakaldo **y los días 23, 24 y 30 de junio y uno de julio,** también en Vitoria-Gasteiz.

**Nota:** en el documento anexo se recogen las fechas de publicación en el BOPV de cada una de las categorías ofertadas en la OPE 2016-2017.

Vitoria-Gasteiz, 16 de marzo de 2018